

# Piarres Larzabalen antzerkigintza, euskal identitatearen paradigmak

La labor teatral de Larzabal, paradigmas de la identidad vasca.

Le théâtre de Larzabal, paradigmes de l'identité basque.

Larzabal's theatre work, the paradigms of Basque identity

ETXEBERRIA, Ixabel  
Université Michel de Montaigne-Bordeaux III - Laboratoire  
IKER-UMR 5478 (CNRS-UB3-UPPA)

Noiz jaso: 2016-02-26

Noiz onartua: 2016-04-25

*Euskera*. 2015, 60, 2. 565-584. Bilbo  
ISSN 0210-1564

Egilea Larzabalen garaian Euskal Antzerkia nolakoa zen deskribatzetik hasten da: Antzerki herrikoia, amateurra, euskaraz egina eta ideia aldetik libreagoa zena. Testuinguru honi atxikiz Larzabalen antzerki moldea lantzen du. Eredu moralistatik urrun, psikologiari lotuko zitzaion antzerkia non pertsonaien nortasun eta izaerak garrantzia duten. Bestalde gai sozia- lei buruzko kezka ageri duen, beti ere injustizia pairatzen dutenen alde. Euskara eta euskal komunitatea prestigioatzen saiatu zen beti. Azkenengo urteetan, hegoaldeetik etorritako erre- fuxiatutekin harremanetan, politikara gehiago hurbildu zen eta ondorioz bere lan batzuk Euskal Herriko historiako pasarteetan oinarrituko dira.

**Hitz-gakoak:** Piarres Larzabal, Euskal Antzerkia, antzerki herrikoia, Enbata.

La autora comienza por describir como era el Teatro Vasco en aquella época: teatro po- pular, amateur, escrita en euskera y con mas libertad en cuanto al tratamiento de los temas. En este contexto analiza a su vez las características del teatro de Larzabal. Alejándose de un modelo moralista sera un teatro muy cercano a la psicología de los personajes, centrándose en la personalidad de ellos. Un teatro atento a las problemática sociales, próximo a los más desfavorecidos. Siempre trato de prestigiar al euskera y a la comunidad euskaldun pero se puede decir que en los últimos años se volcó más en la político y estableció mucha relación con refugiados que provenían del sur de Euskadi. En consecuencia muchos de las obras de esta época se basan en acontecimiento relevantes de la historia de Euskal Herria.

**Palabras clave:** Piarres Larzabal, Teatro Vasco, teatro popular, Enbata.

L'auteur commence par décrire le Théâtre Basque de cette époque : théâtre populaire, ama- teur, écrit en basque et avec une plus grande liberté dans la manière de traiter les sujets. C'est dans ce contexte qu'elle analyse à son tour les caractéristiques du théâtre de Larzabal. S'éloignant d'un modèle moralisateur, il s'agit d'un théâtre très proche de la psychologie des personnages, axé sur leur personnalité. Un théâtre attentif aux problématiques sociales, proches des plus défavorisés. Il essaya toujours de mettre en valeur la langue basque et la communauté basque mais on peut dire qu'au cours de ses dernières années il se consacra corps et âme à la politique et il établit des rela- tions très étroites avec les réfugiés qui venaient du Pays Basque Sud. C'est pourquoi de nombreuses œuvres de cette époque sont basées sur des événements importants dans l'histoire du Pays Basque.

**Mots-Clé :** Piarres Larzabal, Théâtre Basque, théâtre populaire, Enbata

The author begins by describing the situation of Basque theatre at the time of Larzabal: a popular theatre, amateur, written in Basque and with a fairly free treatment of ideas. In this con- text she analyses Larzabal's theatre style. Far from the moralising model Larzabal's theatre is psychological, where the personality and nature of the characters have their importance. A con- cern for social matters is also visible, always coming down on the side of those who suffer injustice. He always tries to give prestige to Basque and the Basque speaking community. In his final years, from his relationships with political refugees from the southern Basque Country, he became more political and as a result some of his works are based on historical incidents from Basque history.

**Keywords:** Piarres Larzabal, Basque theatre, popular theatre, Enbata

Piarres Larzabal idazlea aipatzeak eremu oso zabalera eramaten gaitu. Idazle goiztiarra eta berehala begiratu, inguruan zituen euskal idazleek, besteak beste Piarres Lafitte, ohartu baitziren gaztetxoak dohaina zeukala, horrela bultzatu zuten jarraitzera. Jarraitu zuen, poliki, bere idatzietan inor erasotu gabe, gazte batek idatziko zituzkeen lanak sortuz, ipuinak, antzerkiak. Hau, gerla baino lehen, gure bigarren gerla, 1939an hasi zena, ez Hegoaldekoek ezagutzen duten 1936ko gerla. Azken hau, haatik, ezagutzen joan zen seminarioan zegoelarik, bertara errefuxiatzera joaten baitziren Hegoaldeko apezak. Hauek desberdinak ziren. Dagoeneko apez mota berezia zegoela ohartua zen, mendian karlisten garaiko apezak ezagutu baitzuen, horrela bestelako apezak zeudela ikusi zuen, ez zirela soilik herrian egoten ziren apez horiek, gerlan ibilitakoak. Bestelakoak bazeudela eta ez zela deus pasatzen, nahiz eta desberdinak izan, apezak izaten jarraitzen zuten. Horrela joan zitzaizkion ondorengo urteak. Idaztea ez zen bere ekintzetan nagusia izan, gertakari askotan parte hartzera eramana izan zen, erresistentziako partaide izan zen eta gerla bukatu arte, bere antzerki lan jarraikirik ez dago.

## Euskarari lehentasuna

Laborari familia batekoa, Larhun inguruan sortuak ziren bere burasoak eta bera ere Larhun inguruan hazi. Etxeko hizkuntza euskara izan zen, Eskolara joateko aukera ere izan zuen, eta bertan frantsesa ikasi. Herriko eskolara joan zen, Jules Ferryk sortu zituen errepublikako eskola horietako batera, eskola publikoa. Eskolan frantsesa zen nagusi eta bertan euskaldunek jasan behar izan zuten bazterketaz asko ez zuen hitz egin. Askotan entzun ditugun zigortzeak ez zituen aipatu, gure burasoek, haienek, jasan zuten zapalkuntza euskaraz aritzeagatik ez zuen deus plazaratu. Egoera haatik aztertu zuen, horretaz, gaiak publikoki idazteaz beharra ikusi zuen, sufrimendutik at joanez, egoeraren azterketa eginez. Eskoletan euskaraz hitz egiteagatik ikasleak zigortzen zirelarik oraindik, euskararen goratzera atera zen.

Horrela, 1949an, oraindik idazle gisa fama gutxi zuelarik, izan zuen maisuaren aipamena egin zuen *Herria*-n. Euskararen goraipamena egiteko luma hartu zuen. Testuinguruan jarrita, bera nazien kontrako borrokan dominak

errezibitu zituena, errepublika horren alde borrokatu zena, ez zen bere oinarrietatik aldendu. Bere hizkuntza hobetsi zuen eta bere eskolako maisuek tronpatu zutela zioen, hezkuntza eremuko mespretxua azpimarratu zuen. Noski, artikuluan, Elizaren kontra eskolan entzundakoa ere aipatu zuen, eskola publikoan Elizak ez baitzuen tokirik. Baina, lehen aipamena hizkuntzarena izan zen. Orduko euskararen aldeko boz batzuk atera ziren eta eskoletan euskararen erakusteko beharra ere ikusten zen. Eskola publikoak ez zion jaramonik egiten eskaerari. Lerro horretan kokatu zen Larzabal, hizkuntzaren garrantziaz ohartua zen. Eskola pribatuak ere, bide beretik, bere kritika jasotzen du.

Au lieu de vous servir de tremplin de notre belle et antique langue euskarienne pour aborder l'étude du français, cette langue vous l'avez méprisée, interdite, partageant en cela, hélas, l'erreur d'un certain nombre d'éducateurs privés.<sup>1</sup>

Gutxitan idatzi du frantsesez, frantsesez idatzi zuelarik iritzi artikulua izan ziren, bere pentsamenduaren mugarriak emanez. Egia da idatzi artikuluhorietan bere nortasuna definitzen duela eta bere helburuak erakusten. Aldiz, antzerki obrari lotu delarik soilik euskaraz idatzi zuen, antzerki bakar batzuetan frantsesezko elkarrizketak baldin badira ere. Euskaraz idaztea erabaki zuen eta hogeita hamar urtez horrela egiten joan zen. Euskara hizkuntza hautatua zen bururaino, onartu zuen ospe bakarra Euskaltzaindian sartzea izan zen, hor bere burua ongi kokatua ikusten baitzuen. Euskarari lotutako tokia.

Bere jatorri soziala ere goraiatu zuen, horretaz aritu zen, antzerkietan, laborari xumeak, bordari zirenen aipamena egin zuen, lurrik gabeko laborari alde agertu zen, bere jatorria hau baitzen, lurrik gabeko laborari familiarikoa baitzen. Horrela azaltzen du artikulua berean, errespetua aldarrikatuz eskolatik beretik erakutsi beharra bazegoela alegia.

Le b-a-ba de toute éducation c'est de ne pas négliger, encore moins de mépriser les apports sains d'un milieu, mais de les utiliser et de les épanouir...

<sup>1</sup> *Herria*, 1949.12.1. 1.

Aulieu de cela, vous nous avez inculqué le mépris de la condition paysanne:»Paysan,va!...Tu en sauras toujours assez pour faire un paysan!» Les avons-nous assez entendues, ces réflexions!

Bere pentsamenduaren lerroburu batzuk azaldu zituen, obra desberdinetan agertu zirenak ondoren.

### **Prensa, plaza berria**

Izan ere, justu gerla aitzin apez izendatu zuten Hazparnera, doi-doi horren ardura hartzeko denborarik izan zuen. Berehala gerla hasi zen eta frontera, orduko gobernuak erabaki zuen frontera joan behar izan zuen, bere adina zuten gazte guztiek bezala. Orduetik aitzina bere bizitza gertakariz betea izan zen. Preso altxatu zuten, kanpamentu batean atxiki zuten orduko Txekoslovakian, han eritu, handik Gurutze Gorriak hartu eta Suitzara eraman eta azkenean Hazparnera itzuli zen. Baina gerla ez zen bukatua eta bera ez zen gai deus egin gabe gelditzeko. Horrela garaiko erresistentzian sartu eta jendea lagundu eta segurki betirako isilduak gelditu diren ekintza desberdinetan parte hartu. Hau zen garaiko Larzabal, pertsona engaiatua eta apeza.

Badakigu, Larzabal apeza, Hazparnera itzuli zelarik, presondegietako eremuetatik pasa ondoren, Hazparneko erretorea zen Mirandek itzultzen zituen antzerkiak lantzen zituela gazteekin. Itzulpen lan hori ez zen bakan egiten, Hegoaldean ere itzulpen franko argitaratuak izan ziren. Itzulpen lana usaiakoa izan zen hogeigarren mendearen lehen zati horretan. Haatik, Larzabalek beste lanik zeukan orduan, literaturarekin loturarik ez zutenak, erresistentzia taldeetan, ondorioz antzerkiari gehiago ez zion eskaini, idaztea ez zen lehentasuna.

Gerla bukatu eta, Parisen gorabehera batzuk agertu baldin baziren komunistak agintea hartuko zutelako beldurrez martxan jarri baldin bazen ere, Nazien kontra eramandako borroka hori gibelean gelditu zen. Obra batean aipatuko zuen baina ez zuen garai horretatik bere inspirazio nagusia hartu, beste kezka batzuen inguruan ibili zitzaizkion gogoetak.

Parisen egona zen eta bertan antzokietako antzerkia ezagutzeko parada izan zuen, armadako lagunekin antzerki lanetan ere aritua zen. Baina ho-

rretaz ia-ia ez zuen deus kontatu. Parisetik ekarri zuena erizain prestakuntza izan zen, horretaz baliatu zen bereziki Zokoara heldu zelarik, bertako jendearen artatzeko.

Aldiz, gerla bukatu eta berehala antzerkiaz zeuzkan kezka eta esperantzak aipatzen hasi zen. *Herria* astekaria izan zen laguntzaile paregabea proiektuen aipatzeko eta ezagutarazteko. Prentsarekin lanean hasi zen.

Larzabalek prentsa kontuan hartu zuen, horren podereaz jabetua zen. Gogoan hartu behar da *Herria* astekaria eliz atarietan salgai zela igandero, familia gehienetan irakurtzen zela, behintzat askotan, benetako eragina zeukan herritarren artean.

Horrela, herrietan, etxeetan irakurtzen zela jakinez gertakari latz baten inguruko iritzia plazaratu zuen Larzabalek Hazparnen iragandako Galarrotsen aipatzeko<sup>2</sup>. Izan ere, 1950eko udaberrian gazteek galarrotsak antolatuz zituzten herrian, Elizaberri auzoan. Ondotik prentsak gaia beregain hartu zuen eta galarrotsen salaketa egin zuen. Herriko gertakari latz batez ari zen. Izan ere, gehienetan alargun bat berriz ezkontzen zelarik, bereziki bera baino askoz gazteagoa zen andre batekin, nolana hiko harrabotsak antolatzen ziren gauaz, etxearen aurrean, galarrotsak. Harrabots horien gelditzeko diru zama bat utzi behar zuen alargunak. Diru hori utzi eta dena gelditzen zen. Urte hartan, 1950ean, Elizaberriko auzoan alargun batek ez zuen amore eman nahi izan, eta gau batez norbaitek tiro egin eta hil bat egon zen. Berantago auzoko gazte bat tiroaren arduradun egin zuten. Jendarmeez atxilotu zuten, zafraldia eman ere, hilketa leporatuz, baina epaileak askatzeko agindua eman zuen. Haatik, gazteak bere buruaz beste egin zuen. Horren harira Pariseko prentsak gaiaren oihartzuna izan zuen eta herrira kazetariak hurbildu ziren sekulakoak eta bi kontatuz. Sekulako astinaldia izan zen herritarrentzat. Jokoa izan zitekeena drama bihurtu zen eta bestalde prentsa herritarrak basa batzuen gisan marraztu.

<sup>2</sup> <http://www.hasparren-histoire.fr>

Prensa handiaren salaketa gordina egin zuen Larzabalek *Herria*-n<sup>3</sup>, frantsesez, idatzitako artikuluan. Ausarta zela erran genezake gertakari zinez latza izan baita eta iturria gazteen jokoetatik abiatua zena. Izugarrizko haserre erakustera ematen du, haserre osoa prentsaren gainean erortzen da, ondorioztatzen ahal dugu prentsaren eraso, kritika, bortitza izan dela eta erantzuteko beste aukerarik ez duela aurkitu herritarrek bizi zutenaren kontra joateko.

Gu ere prentsarekin lanean aritu gara gertakarien oihartzuna baita, antzerkiari zer harrera eman nahi zitzaion ulertzeko eta zer garrantzia, zer bultzada eman nahi zitzaion ulertzeko.

### Antzerki munduko berrikuntzak

Frantsesez ematen zen antzerki munduak berrikuntza handiak ezagutu zituen hogeigarren mendearen hastapenetik. Antolaketa mailan, publikoari begira berritzearen beharra gogoetatu zen. Euskal antzerkiaren lantzeko unean ez da erreferentzia nagusia izaten ahal, antzerki honek ezagutzen dituen baldintzak ez dira ofizialtasunik ez duen hizkuntzan egiten denarekin konparatzen ahal. Haatik, bi munduetan gogoetak eta berritzeak bizi ziren, biak kontuan hartzekoak dira, ez badute elkarrenganako eragin zuzenik, eragin zerbait izan zela pentsa daiteke. Arte mundua denez, loturak badaudela pentsatzeko bidea badago.

1920an **Firmin Gémier-ek** TNP sortu zuen Parisen Antzerki Nazional Herrikoa, kalitatezko ikusgarriak antolatzeko proiektua, publiko zabalarentzat, erran nahi baita kultura herritar xumeentzat ere eskaintza egon behar zela pentsatu zutela, TNP antzerki proiektua sortu zutenek. Gerla aitzin ibilbide bat izan zuen, baina etena ezagutu zuen gerla garaian. TNP-ren helburua, kalitatezko ikusgarrien sortzea zen, bigarren mailara pasa zen, gerlak indar guztiak eramane zituen. Ez du horrek erran nahi ez zela antzerkirik ematen garai horretan, baina proiektu hau bertan behera gelditu zen.

---

<sup>3</sup> *Herria*, 1950.06.01. 1.

Horren aztarnak ezagutu zituzkeela Larzabalek Parisen egon zelarik, zaila da baieztatzea, eremu arras desberdinetan zebilelako, TNP ez baitzen baitezpada elizari lotua. Haatik gurutzeak egotea pentsatzeko aukera badago.

Gerla bukatu eta bestalde, gogoan hartu behar da Avignon-eko festibala sortu zela 1947an, Jean Vilar-en eskutik. Berantago, 1951n Jean Vilar-ek Pariseko TNP-a bere gain hartzen du, zuzendari izendatua da eta antzerkigintza bultzatu zuen. Antzerkigintza zerbitzu publiko gisa ikusten zuen, antzerkigintza herrikoiaren aldeko motibazio honek eragin handia izan zuen ondoko hamarkadetan eta hau instituzioetatik bultzatzen zen antzerkigintza baldin bazen, antzerki amateurrari kalitatearen erronka jartzen zion publikoaren hunkitzeko gisan.

Loturak egitea oso zaila iruditzen zaigu baina ohargarria da TNP-en berriabiatzea 1951n hasten dela eta Larzabalek *Etxahun* antzerkia plazaratzen duela ezagutzen zaion arrakasta lortuz. Loturarik ez dago baina garai horretan antzerkiarekiko grina zegoela erran dezakegu.

Bestalde erran behar da gobernuak dekretu bat erabaki zuela antzerki amateurraren definitzeko.

Estatu dekretu batek definitu izan du antzerki amateurra, ezagutza ofiziala edo eman nahi ziola, 1953ko abenduaren 19ko 53-1253 dekretua, ikusgarrien antolaketari doakiona, honela dio:

Est dénommé «groupement d'amateur» tout groupement qui organise et produit en public des manifestations dramatiques, dramato-lyriques, vocales, chorégraphiques, de pantomimes, de marionnettes, de variétés, etc..., ou bien y participe et dont les membres ne reçoivent, de ce fait, aucune rémunération, mais tirent leur moyen habituels d'existence de salaires et de revenus étrangers aux diverses activités artistiques des professions du spectacle.<sup>4</sup>

Hau zen ikusgarrien antolatzeke zegoen koadroa. Eraginik ba al zuen antolatzaileen lanetan ez dakigu, horri buruzko azalpenik ez dugu aurkitu. Euskaraz egiten zenak oihartzunik ez zuen izaten prentsa «handian», pentsa

<sup>4</sup> *Du théâtre amateur*. CNRS Editions. Paris 2004.



daiteke dekretuak ez zuela ondoriorik izan, baimenak herrian berean lortzen zirela.

Antzerki amateurrek ezaugarriak ditu, XX. mendearen bigarren partean gure kulturaren zutabe handia izan da, lan egin du ikusgarrien estetika hobetzeko, testu idatziak sortzeko, publikoarekin harreman hurbila atxikitzeko, memoria berpizteko, hipertestuetan nabari den bezala nahiz eta batzuetan mitoekin topo egin. Helburutzat hobekuntza izan du, bizi baldintzak kontuan hartuz baina beti galdera berari helduz, nola hobetu? Zer eraiki gaur egungo publiko adituari plazer egiteko? Antzerkia plazera, gozamena ere baita. Zer zentzu du eta zer balore du amateurra izateak? Gure antzerkia luzaz bizi izan baita, eta gehienbat instituzioetatik kanpo.

Anitzetan antzerki amateurra azpianzerki gisa ikusia izaten da. Alta, arte munduan, profesionaltasunaren definitzea nahiko zaila izaten da. Independentzia ekonomikoa aipatu behar al da, ala auto-definizioa, kideen ezagutza edo eskola baten titulua? Espezialista batzuen sortzeak eskakizun berrien agertzea ekartzen du, definizio berri bat eta nortasun definizio argia ere. Amateurren munduan hau ez da agertzen, plazera aipatzen ahal baita, arunt bestelako interesa, bizitza osoan zehar bilatzen dena:

Par l'art seulement nous pouvons sortir de nous, savoir ce que voit un autre de cet univers qui n'est pas le même que le nôtre, et dont les paysages nous seraient restés aussi inconnus que ceux qu'il peut y avoir dans la lune. Grâce à l'art, au lieu de voir un seul monde, le nôtre, nous le voyons se multiplier<sup>5</sup>

Ez du honek erran nahi kalitatea ez dela mundu horretan bilatzen, alde-rantzikoa erakutsi dute euskal taldeek baina nagusien eta nagusituen munduan biziz, hizkuntza gutxituan arituz hizkuntza nagusi baten ondoan, landu behar zituzten munduak oso desberdinak ziren, bazterrekoak, dominanteen munduak begiratzen ez zituenak, hala ere bizi zirenak. Beste mundu bat erakusteko nahikeria zuten, utopia forma bat.

<sup>5</sup> M. PROUST, *A la recherche du temps perdu*. Paris, LGF, Le Livre de Poche, 1984, 257.o.

Antzerki amateurrak baldintza guztiak betetzen zituen garapena ezagutzeko. Bestalde, marjinan bizi zen proiektu kulturala zen. Bazterretako kultura, harreman gutxi zeukana instituzioekin, haiengandik diru laguntzarik eskuratzen ez zuena. Instituzioak ez ziren baitezpada interesatzen euskaraz egiten zen sorkuntzarengatik. Horrez gain, marjinak transgresioa errazten du, transgresioa edo bederen kritika, kritika soziala. Tradizioaz hitz egiteko baimena ematen zuen, tradizioaren berritzeko aukera ematen zuen, ez baitzuen onespén soila espero, publikoaren erantzuna bilatzen zuen, publiko-arekiko komunikazioan oinarritzen zen, onespén maila bat aurkitzeko. Aurkezpen aukera handia ematen zuen bazterreko egoera horrek, zentsura maila apalagoa zuena. Erran behar da gero, gehienetan apez baten itzalpean antolatzen zirela antzerkiak, honek nolabaiteko ziurtagiria ematen zuen herrian aurkezteko.

Haatik, horrela baieztatzen ez bada ere hizkuntzak zuen muga ematen, instituzioetatik hizkuntzaren ezagutza ezak egiten zuen baldintzak arrunt desberdinak zirela eta motibazioak ere. Nola lan egin, instituzioek dirurik ematen ez dutelarik, hizkuntza baztertua delarik? Sorkuntza desberdina izan zen, libreagoa agian, tradizioari atxikia zen mundu batean, elementu antagonistak beharbada, baina berritasuna eskatzen zuena.

Talde lana zuen gogoko Larzabalek eta Lafitte-rekin harreman handia zuen, eskolako maisua izan zuen. Ikusi dugu lehenago *Aintzina* aldizkariari begira zer gutun idatzi zion Larzabalek Lafitte-ri. *Herria* astekarian 1946an Lafittek plazaratutako artikuluan euskal antzerkia zer izan behar zuen azaldu zuen. Hemeretzigarren mendetik hirurogeita hamabi bat antzerki zenbaituak zituen Lafittek, nahiz eta horiek ez publikatuak egon gehienentzat, baina izan, izan ziren.

Depuis un demi siècle le public goûte beaucoup le théâtre en sa langue maternelle: on constate ce fait non seulement en Pays Basque, mais même chez les Gascons et les Béarnais. Des ouvrages comme le Théâtre gascon de M. Guillaumie ou le théâtre gascon landais de M. René Cuzacq sont fort instructifs à ce point de vue.

En Pays basque, le répertoire est relativement plus riche que chez nos voisins, quoique fort peu de chose ait été imprimé: de 1886 à nos

jours, je crois ne pas exagérer en comptant soixante-douze pièces jouées en basque...<sup>6</sup>

Lafittek iritzia plazaratu zuen antzerkiaren inguruan, horren arrakastaren berri eman zuen, ez edozein antzerki motari buruzko iritzia, ama hizkuntzan ematen zen antzerkia.

Lehenik, erran behar da frantsesez idatzia dela iritzia, beste iritziak ere ikusten ditugu frantsesez *Herria*-n plazaratuak. Bigarrenik, Lafittek informazio garrantzitsua eman zuen antzerki kopuru bat emanez, ez dakigu kopuru horretan zer antzerki mota aipatzen duen, ea antzerki mota guztiak metatzen zituen edo bakarrik toki hetsietan antolatzen zirenak. Izan ere, pastoralak kontatzen baditu informazioak ez du interes bera.

Zoritxarrez zerrenda horren bildumarik ez da jaso izan, betirako desagertu dira batzuen kasuan. Horrez gain, berrikuntza egiteko deia zabaldu zuen Lafittek eta lotura zuzena egin zuen eskolekin. Dagoeneko euskarak eskola barnean egon behar zuela pentsatzen zuen, maisuei ideiak emanez. Hau oso modernoa da garaiko egoeran, jakinez eskola publikoak ez zuela begi onez ikusten euskararen erabilpena eskoletan. Sorkuntzara joateko deia egiten zuen, esperantza gazteengan jarriz. Bestalde, artikuluan azaltzen denaren arabera antzerkia bizi zen, ez bakarrik Euskal Herrian, baina inguruko herrietan erabiltzen ziren hizkuntzetan, frantsesa kontuan hartu gabe.

Berritzeko beharra aipatzen zuen Lafittek. Berritze hori horrela ikusten zuen:

Mais à quelles sources aller puiser les sujets? Les sources sont innombrables.

D'abord l'actualité: tickets, marché noir, contrebände, lois nouvelles, bombe atomique, les vieilles chansons...<sup>7</sup>

Ideiak bazituen, harentzat aukera oso zabala zegoen, gai oso serio sak, garaikideak, herritarrek ezagutzen zituztenak aipatzen zituen. Artikulu ho-

<sup>6</sup> *Herria*, 1946.08.22.1.

<sup>7</sup> *Herria*, 1946.08.22

rretan ageri da benetan garaian kokatu nahi zuela antzerkia, mundu errealean, munduan bizi zen errealitatea euskaraz plazara eramanez.

Berantago, anonimoa den artikuluan nolako antzerkiak behar diren azaltzen zen *Herria*-n ere, aholkuak ematen ziren antzerkiak idatzi nahiko zituztenei:

1. Zuen sujetak har Eskual-Herriko bizi-pidetan. Ez hek bila nunbait edo nunbaiteko denboretan. Bota oraikotik eta guretik.

2. Ez trufa Eskualdunetz, frantsesa ez dakitelakoan edo holako... Eskualdunak, zuen ikusgarrian ez ditela holako gaizo batzu bethi kanpotiarren petzero...Hortan, Eskualduneri eskualdun izatearen ahalgea emaiten diozue.

Eta hori krima bat da.<sup>8</sup>

Artikulu honetan argitzen zen zer nahi zen eta zer ez zen baitezpada egin behar. Gainera azaltzen zena hitz gordinekin adierazia zen. Antzerki mota bat zebilen non euskalduna gutxietsia zen, hau ez zen onartzen antzerkia berritzen ikusi nahi zutenen artean.

Beste informazio mota bat ematen da denbora berean, antzerkia nola antolatzen zenari buruz. Izan ere, herri gehienetan oraindik neskak eta mutilak ez ziren nahasten, parekotasuna edo elkar bizitza ez zen gaur egun bezala bizitzen, ez antolatzen. Horrela zioen artikulua:

3. Ez ahantz gure herrichka gehienetan muthikoak elgarren artean, bakarrik-eta neskatoak ere bakarrik direla ikusgarrietan jokatzen. Ez beraz ezar nola nahizka zuen ikusgarrietan muthiko neskatoak nahas mahas; zuen ikusgarria nehork ez bailezake onhart...<sup>9</sup>

Garai horretan oraindik, 1948an, neskak eta mutilak ez ziren nahasten antzerkian aritzeko, alegia bi talde zeuden, bat segur aski apezak kudeatzen zuena eta bestea serorak eramaten zuena.

<sup>8</sup> *Herria*, 1948.05.06.3.

<sup>9</sup> *Herria*, 1948.05.06.3.

Elementu batzuk jarriak ziren, gogoetan zeuden eta ekintzak bultzatzen ziren, antzerkiak sortzea alegia. Artikulu honetan ikasten dugu talde antolatatu asko zeudela Ipar Euskal Herrian zehar. Honela zioten:

Aurthen berrogoi herri edo herrichketarik segurik ukhan ditugu théatrotan jokatzeko eskuarazko ikusgarrien galdeak...

Eta iduri guzien arabera, galde horiek goitituz joanen dira ondoko urthetan...Behin entseatzeak, bigarren aldi batez jokatzeko tirria phitz-arazten baitiote gazteri.

Hobe segurki, eskuararen eta Eskual Herriaren onetan...<sup>10</sup>

Lafittek gizarte gaiak baliatu behar direla zioen antzerki berrien sortzeko. Horrez gain, berriz eta itzulpenen aukera aipatzen du, De Jaureguiberry anderearen lana gogoratuz. Hark Zuberoan Molière autorearen itzulpenak egin zituela xibererara eta antzerkiak antolatu. Horrekin ikusten da antzerkigintza hiru herrialdeetan bultzatu nahi zela. Haatik, barneko antzerki gisa ulertu daitekeen lana ez zen asko zabaldu Zuberoan, eta Jaureguiberryren lanetatik aparte ez da besterik aurkitzen ez bada Zuberoako antzerki tradizionala oso ugaria zena eta dena, baina gure gaian zuzenean kokatzen ez duguna.

Bide beretik, kontuan hartu behar dugu garai horretan Euskaltzaleen Biltzarrak sariak banatzen zituela eskoletan «eskuara hobekienik erabiltzen duten gazteri»<sup>11</sup>. Aukera hau euskararen aldeko dinamikaren bultzatzeko pentsatua zen. Ondoko urteetan, ekintza honek jarraipena izan zuen, antzerki munduan bide hori ere jorratu zen. Anonimoa den beste artikulu batean zenbait antzerki izenburu ematen zituzten, hauek herrietan banatuak izan zirenak, erran nahi baitu pentsa daitekeela herrietan antolatua eta erakutsiak izan zirela. Horrela zioten:

Ikusgarri zorbait badira ezin hoiien bilduz ari baita (Chorobit anderea alegia)...Hala nola:

<sup>10</sup> *Herria*, 1948.05.06.3.

<sup>11</sup> *Herria*, 1946.08.22.1.

«Thomas ezkongei»,-«Vichy ala ahuchki»-«Artho churitzetako»-«Mehetegiko Etchoekoanderea»-«La farce du Cuvier, eskualat itzulia»

Artikuluetan, hemen bezala, izen bat agertzen da antzerki antolaketan garrantzitsua dena, Chorobit anderearena. Izan ere, andere Chorobit-ek orduko antzerkiak biltzen zituen eta ondoren banatzen behar zituzten taldeei. Bere izena askotan errepikatzen zen izena dugu.

Antzerki talde asko, antolaketa bat apezak eta seroren inguruan, euskaraz aritzeko nahikeria, gogoetak, antzerki batzuk ezagunak, herri batetik bestera errepikatzen zirenak. Hau zen eremua, Larzabalen idazlanek aberastuko zuten plaza.

Bukatzeko, antzerki lehiaketetara itzuliz, 1951n, Ipar Euskal Herriko kantonamendu guztiak deituak izan ziren lehiaketan parte hartzera, Eskualzaleen Biltzarrak eta *Herria* astekariak eskaini zituen sariak.

*Herria* astekaria aipatzen dugu baina euskarazko prentsak, urtetik urtera ugaltzen joan zenak, antzerki mundua jarraitu zuen. Izan ere, *Antzerti*, *Egan*, *Zeruko Argia*, besteak beste antzerki, antzezle eta antzerki idazleen berri ematen joan ziren, kritikaren aipamena egiten, sortzen. Oihartzun handia izan da euskarazko prentsan eta eremua preziatua izan da, azken finean, herritar askok parte hartu izan baitu herriko taldeetan, antzerki lanak sortzen.

## Larزابalek antzerkigintzari bultzada

Ikusi dugu antzerkia nahiko osasuntsu zegoela gerla bukatzean, alegia ideiak eta taldeak zeudela lan horretan, kultur eremu hori azkarra zela. Larzabal giro horri lotu zen.

Patronage-ko antzerkia definitu zen horretatik antzerki amateurra sortzen lagundu zuen taldeen araberako testuak idatziz eta taldeen interesa pizten zuten testuak sortuz.

Antzerki lanetan aritu zelako lehen aztarna idatzia aurkitu dugu *Herria*-n 1946an, bertan antzerki bat antolatu zuenaren aipamena baita. Hor jakiten

dugu Hazparneko jolasetan parte hartzen zuela, bertan antzerkiak antolatzen zirela<sup>12</sup>. Azpimarratuko dugu orduan ez zela antzerkia aipatzen baina Komedia. Komedia hitza gehien erabiltzen zen hitza zen, bederen *Herria* astekarian.

Lafitteren gogoetan aipatu ditugu eta ikusi ere Lafitterekin batera beste batzuek plazaratzen zituzten antzerkiaren inguruko iritziak. Larzabalek, ondoko urteetan gogoeta horietan parte hartu zuen. Hor ere aipatu nahi dugun artikulua frantsesez idatzi zuen.

Larzabal Hazparnen bizi zen eta antzerki lanetan ibiltzen zen Mirande erretoreak askotan itzuliak zituen antzerkiak emanez herriko gazteekin. Haatik, honetan agertzen da ekintza asko antolatuak zirela, ikusgarri asko antolatzen zirela eta horri buruz norabidea finkatzen saiatu zen Larzabal. Ikusgarri handiak ziren, herritar guztiek parte hartzen zuten sorkuntzan. Antzerki mota bat goraiatzen zuen eta seguruenik parte hartu zuen horrelako ekintzetan. Haatik, barneko antzerkia izan zen hautatu zuena bere dohaina erakusteko.

Artikulu honetan<sup>13</sup> pastoralari kritika azaltzen zuen, moralista zela zioen eta baita ere plazetan antolatuak ziren gurdi ibilaldi loredunak. Beste zerbaiten beharra sumatzen zuen. Horrela, kritika horretatik bide berria jorraztera joan zen, «patronage»<sup>14</sup> jostetatik atera eta antzerkigintza amateurra indartzen hasi zen. Urte hauetan dakigu antzerki munduan berrikuntzak izan zirela bereziki Hazparne, Luhuso eta Makean. Baina oraindik Larzabalen testurik ez da aipatzen. Aitzitik, testuak ez du toki aparta. Ezaugarrietan

<sup>12</sup> *Herria*, 1946/02/07.

<sup>13</sup> *Herria*, 1949.06.09.1.o.

<sup>14</sup> *Patronage* hitza frantsesetik heldu da, apeza eta serorek kudeaturik, antolatzen zituzten joko edo ateraldiak ziren. Elizaren pean sortu herri antolaketari erratan zitzaion. Euskaraz ez zitzaion beste izenik eman. Behintzat ez zen erabiltzen. Horregatik, luzaz, babes horren pean antolatzen ziren antzerkiak gutxietsiak ziren, egia erran batzuek ez zuten balore handirik baina asko galdu dira ere. Ondorioz iritzi zorrotz bat izatea ezinezkoa da gutxi aurkitu baitira bigarren gerla baino lehenagoetan. Eredu zehatz hori adierazten du hitzak. Forma bereko antolakuntzak zeudela aitortu zidan Alfonso Sastrek, garai berean, Espainian zehar, eta bertan bere antzerkiak ematen zirela.

herritar askoren parte hartzea zela zioen, kantuak, jantziak, kabalkadak aipatzen zituen. Antzerki mota bat goraiatzaren zuek baina ez zuek bide horretatik jarraitu. Beste bide bat hautatu zuek, psikologiari lotuko zitzaion antzerki mota bat, pertsonaia desberdinek, haien nortasun eta izaerak garrantzia zutenak. Idatziak lanketa eskatzen zuek pertsonaia bakoitzaren izaeraren ulertzeko gisan. Pertsonaiei garrantzia ematearekin publikoarekiko hurbiltasun erreala, konkretua eskatzen zuek, espazioaren aldetik ere, aktoreen arteko elkarrizketen entzuteko gisan. Segurki, barneko antzokiak, espazio mugatu honek, askatasun handiagoa eskaintzen zion bere mezuek, bere debateen hedatzeko.

Egin behar zenari buruz ekinez ari zen azaltzen, prentsan ere. Antzerki mota desberdinak agertzen ari baitziren plazetan, onartzen ahal ziren lanak zein ziren erran nahi zuek ozen. Iritzi markatua plazaratu zuek 1952an. Lehenik idazle batzuen izenak eman zituen; antzerkiak idazten zituzten idazleak:

Ces pièces sont d'auteurs variés: Mirande, Idieder, Lion, Elissalde, Lafitte Elicagaray, Loustau, etc...<sup>15</sup>

Euskaldunen irudi ezezkorra hedatzen ari zela sumatu zuek Larzabalek. Hark beste irudia zuek gogoan, euskaldunak goraiatu nahi zituen, herritarrekiko mespretxua ez zuek onartzen. Antzerki mota hau izendatu zuek.

Parmi ces pièces nocives et à ne plus jouer, j'en signale de deux sortes:

1°) Des pièces telles que «Ganich de Makaye»-«Vichy edo Ahuchky»-«Egiazko eskualdunak». Après avoir, en particulier, assisté à cette dernière pièce, on ne peut s'empêcher d'éprouver l'impression pénible que notre religion, comme notre langue est à reléguer aux accessoires périmés...

La thèse sous jacente à ces pièces(quoiqu'en disent les auteurs) est que la langue basque est un moyen d'expression à bannir au profit de la langue française et que ceux qui en usent encore sont des esprits arriérés ou inadaptés....

<sup>15</sup> Herria, 1952.03.27.2.



Le théâtre basque doit résolument sortir de ce passé mourant et se lancer vers un avenir de grand air et de beauté...

Nous voulons du nouveau, de l'actuel, dussions-nous pour nous faire comprendre, provoquer quelques remous.<sup>16</sup>

### ***Etxahun mugarría***

*Etxahun* antzerkiak egin zuen Larzabalen izena heda zedin herrietan. Gogoan zuen antzerki berria gauzaten hasi zen. Hazparneko taldeak eraiki zuen antzerkia, Larzabal Zokora igorria izan zen urtean. Antzerki honek izan zuen arrakasta itzela izan zen. Formaren aldetik desberdina izan zen, ez zen usaiako komedia, non irri egiten zen. Usaia zen herri guztia elkartzea herriko salan, antzerkia ikusteko, lagunek, haurrideek antolatatu zuten antzerkia, askotan Euskaldun Gazteriak herrian zuen antolakuntzaren inguruan sortu lana. Familia osoak elkartzen ziren antzerki hauen ikusteko. Gainera hemen ere apesak sortu lana zenez, ez zen moralaren aldetik arrisku izpirik.

Horrela, *Etxahun* bertsolariaren bizia kontatuz, beste eremu batera eramán zuen publikoa Larzabalek. Epaitua, kondenatua, emazte fidela ez zuen gizonaren bizia kontatu zuen. Irri gutxi zegoen historia horretan, baina talentua, ulertzen zen hizkuntza, hurbileko gertakizuna. Elementu horiek baitmentzen zuten ulertze zabal bat eta arreta berezia.

Antzerki horrekin Hazparneko taldea herrietan zehar ibili zen, gelaz gela antzerkia erakusten. Tokiko taldeetan aktore onak zeudela agerian utzi zen, kalitatezko ustiapena izan zen. Hau beste zerbait zen. Testu luzea, aktore nagusiak bakarrik luze batekin hasten zuen antzerkia. Lan itzela zen.

Horrez gain beste irudi bat eskaintzen zen. Euskaldun izateak bestelako balore erakustaldia lortu zuen antzerkiari esker eta hori publikoak hobetsi zuen. Arrakastaren neurtzeko baliabide bakarra zen, publikoa. Hark erantzun zuen, hor zegoen, emanaldi guztietan, gelak beteaz.

<sup>16</sup> *Herria*, 1952.03.27.2.

## Berrikuntza etengabe

Antzerkiak idazten hasi orduko, obrak taularatuta, arrakasta etengabe hedatzen joan zen. Obrek tokiko problematikak aipatzen zituzten, inguruan zuen mundua, arazoak, kezkak, bereziki gazteek zituzten kezkak aipatu nahi zituen eta Euskal Herriak ezagutu zituen gertakariak. Erran behar da Ipar Euskal Herria zuela gehiago begiratzen, bertako errealitatea ezagutzen baitzuen gehien.

Antzerkietan nabarmentzen ahal dena da euskaltasuna goratzeko nahia. Euskalduna sozialki ez zela neurritz errespetatua bere gizartean, horren goratzeko beharra ikusi zuen eta horren isla nabarmena da obra guztian.

Horrez gain zenbait euskaldunen bizia plazara ekarri zuen, horien ezagutarazteko, ezagutza hori, kultur kolektibo hori azkartzearen beharra ere ikusi zuen. Horren harrera oso baikorra izan zen, prentsak egin zituen azalpenetan zehaztasun asko aurkitzen ziren, oharrak, goraiapatzeak etengabe. Kritikak izan ziren baina gehienetan baikorrak.

Antzerkia zen Larzabalen eremua, baina politikara hurbilduz joan zen eta harekin gazte batzuk. Horrela bi eremu agertu ziren non bere burua engaiatzeko beharra ikusi zuen. Lehenik, Hegoaldetik heldu ziren errefuxiatuen laguntzeko alde batetik, ondorioz Anai Artea sortu zuen bere laguna bihurtu zen Teleforo de Monzonekin eta bigarrenik, Enbata talde politikoa sortuz.

Ibilbide horretan gaztez inguraturik ibili zen eta bere lanak nola ematen ziren ez zuen zentsuratzen. Antzerkia idatzi eta gero askatasun osoa zuten taldeek testua egokitzeko. Bestalde apainketa, pertsonaien banaketa, taldeetan erabakitzen ziren. Horrela apainketa berria izan zen *Ibañeta* eman zelarik. 1968ko antzerkia garai astinduetan eman zen eta horren isla ikusten da antzerki horretan.

*Matalas* aldiz, beste helburu batzuekin eman zen, apainketa nahiko klasikoarekin sortu zen, hemen, euskal antzerkigintzaren kalitatearen erakusleiho izan nahi baitzuen. Malgutasun honek indar handia zegoela erakusten digu, hobetzeko gogoia eta aniztasunaren gaitasuna hor zeuden.

Horrela adierazten zuten *Herria*-n, 1968ko urte hartan, non talde batek *Matalas* taula gainera ekarri zuen eta denbora berean Heletan Monzonen obra bat sortzen zuten. Heletako taldeak zortzi urte zeramatzan antzerkiak erakusten, urte hartan *Menditarrak* taularatu zuten. Baina, aspaldiko proiektuaren berri eman zuten astekarian:

Bertzalde, heldu den martxoaren 15-ean, Baionako teatro handian, agertuko da antzerki berri bat: *Matalaz*. Herri multxo batetarik elgarretaratu taulariak dute obra berri hori emanen. Aspaldian teotralari buruzagien ametsa zen, han eta hemen jokolari hoberenak bilduz zerbait lan ederren muntatzea. Horra ametsa obratzekotan.<sup>17</sup>

Hogei urte iragan ziren antzerkiarentzat berrikuntza eskatzen zenetik. Hau obratu egin zen. Horrez gain, lortu zen herrietako taldeak biziaraztea eta antzerkiarekiko gustua eta plazera indartzea, antzerkia antzertira eramatea. Antzezle hoberenak obra nagusi batentzat. Horren oihartzuna prentsan agertu zen, berriz ere. Arrakasta itzela izan zen, publikoak erantzun zuen eta lana ederra izan zela zioten. Irautea zen erronka.

### Euskal nortasunari atxikia

Gizartea aldatzen joan zen, Larzabalek euskararekiko atxikimenduari lehentasuna eman zion. Bestalde, Hegoaldetik etortzen ziren errefuxiatuei laguntza ematea erabaki zuen eta politikan sartzea ere Enbata mugimendua sortuz. Horrek ondorioak ekarri zituen idazten zituen lanetan. Memoria eta aldarrikapenak garrantzia hartzen joan ziren. Memoria, Ipar Euskal Herriko gertakariak, Erdi Aroan iragandakoak, bereziki kontatu zituen. Ez zuen zorrotasun itzela kontaktetan, ez zen helburua, ez baitzen historialaria. Baina gertakariak kontatzen zituen, hala nola Nafarroako erresuma, *-Ibañeta-*, Ingelesen presentzia *-Ingles ginelarik-* non erraten duen herritarren bost ordezkari kondenatu zituztela, heriotz zigorra jarri zietela, ito zituztela. Euskaldun batzuen izenak goraiatu zituen, arrazoi, argudio desberdinekin, *-Etxahun, Sarako Lorea, Berterretx, Matalas-*, publikoak hemengo iragana

<sup>17</sup> *Herria*, 1968.02.08.1.

ezagutu zezan. Ez ziren historia zehazki kontatzen zuten antzerkiak, baina euskaldunei toki duina eskaintzen zien obrak. Beste euskal mundu bat, beste egoera bat ezagutu zuten euskaldunek, egoera duina, bere buruaren jabe, nonbait Aberri Handia eta Aberri Txikiaren<sup>18</sup> kontzeptuarekin hausten zuena.

Hogeita hamar urte baino gehiagoko antzerki sorkuntzak lerro batzuk marraztu ditu eta norabide azkarra. Hizkuntza hautatu zuen, euskarari atxikimendua bururaino erakutsiz. Horrez gain euskaltasuna goratzen, euskaldunek kolektiboki izan zuten historiaren memoria berpizten aritu zen. Hori guztia berrikuntza bati buruz, ahulenen defentsaren beharra nabarmenduz, langileen eskubideen aldarrikapena manikeismoan erori gabe, herri gisa aitzinatzekeo beharra sustatuz.

Hau da lerro batzuetan, gehiago ere aipa daitekeelako, Larzabalen antzerkigintza izan zena. Oso garaikidea, gaur egun oraindik antzerki horiek oihartzuna, publikoa daukatela esplikatzen duena.

---

<sup>18</sup> Jean Barbier-en obran ederki azaltzen dira Aberri Handia eta Txikiaren arteko harremanak. Aberri Handia Frantzia zen Alemaniaren kontra defenditu behar zena 14-18ko gerla hasi zelarik. Horretara joan ziren euskaldunak. Euskal Herria aberri txikia zen, bigarren lerroan kokatua zeini euskaldunek atxikimendu handia zioten, hizkuntzaren bitartez bereziki eta familiari lotuz. Ongi definitutako konzeptua da, erran daiteke gaur egun oraindik balio duela.